

2025eko AZAROA

BERMEON ZER?

Azaroak 8

**HALLOWEEN
METAL FEST**

Azaroaren 14tik 16ra

San Martin kaleko jaiak

Azaroak 25

**Emagumeenganako
Indarkeria
Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna**

 **BERMEOKO
UDALA**

ZEUK ERABAKI!

2026ko Aurrekontu
Partehartzaileak

50.000€

ZELAN PARTE HARTU?
¿CÓMO PARTICIPAR?

Urriaren 20tik azaroaren 2ra
Del 20 de octubre al 2 noviembre

1

Proposamenak batu
Recopilación de propuestas

Azaroaren 3tik 7ra
Del 3 al 7 de noviembre

2

Proposamenak aztertu
Análisis de las propuestas

Azaroaren 14tik 30era
Del 14 al 30 de noviembre

3

Bozkatzeko ordua
Hora de votar

Abenduaren 1etik 5era
Del 1 al 5 de diciembre

**Proiektu irabazlearen
berri eman**
Publicación del proyecto
ganador



HARTU PARTE!

BERMEÑO
UDALA

31
01

Barikua
Zapatua
Frantziskotarren
klaustroan
18:00-21:30



GAU BELTZA

'OHITURAK' MIKRO ANTZERKIA


Aktoreak: Zigor Bilbao, Itxasss, Triz,
Iñigo Cano eta Agor Güena
Gidoia eta zuzendaritza: Maria Dondiz Luzarraga
18:00etatik 21:30era, ordu erdiro saio bat eskainiko da
Sarrera: 4 €, salmenta egunean bertan sarreran

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



01

Zapatua
Liburutegi
aurretik
09:30ean



IRTEERA

IBILBIDE MIKOLOGIKOA

Duela gutxira arte emakumeok mantendu izan dugu belaunaldi belaunaldi sendabelar eta onddoen inguruko jakituria. Ordea, egungo jendarte ereduak transmisiorako bideak eten eta naturatik aldendu gaitu. Onddoak eta horien ekosistemak ulertzeko, erabiltzeko eta babesteko beharrezkoak diren ezagutzak eskuratuko ditugu. Horrela, jasangarritasuna, ingurumena lehengoratzeko eta biologia funtikoa ulertuko ditugu. Erdu etxe inguruko mendietako baso batera Euskal Herriko perretxiko jangarriak nola, non eta noiz biltzen diren jakiteko. izen ematea: berdintasuna@bermeo.eus / 688 638 449
Gidaria: Veronica Díaz

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Zapatua
Arrantzaleen
Museoan
11:30 - 13:00

UMEENTZAKO TAILERRA

ARIMEN GAUA

Misterioz beteriko egun hauetan, elkartu gurekin museoan. Tradizioak eta artea lotuz, gure txikiak sormena sustatuz, beraien eskulan tematikoa sortuko dute.

Adina: 4 - 10 urte. Hizkuntza: Euskara

Informazioa eta erreserbak: 94 688 11 71 / arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Erreserba beharrezkoa da, aforo mugatua.

Prezioa: 1 € umeak

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museo**

Bermeoko
Kafe
Antzokian
20:00etan

MUSIKA

TERRAZA SOINUAK BAMMS + Time and Punishment


Sarrera : 6 € atean

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**



02 **Domeka**
Areneko
kiroldegian

San
Frantzisko
elizan
13:00etan



03 **Astelehena**
Gizarte eta
Kultura Etxean
12:00-13:30

KIROLA ESKUBALOIA

Kadete neskak: Garbola Urdaibai- Periféricos Sidenor Basauri

EKITALDIA MEZA ABESTUA

Izaro Abesbatzaren eskutik

Antolatzailea: **Izaro Abesbatza**

EKITALDIA GAZTEENTZAKO IRTEERA BILBOKO ILUSIOEN MUSEORA

Informazio gehiago: 16. orrialdean

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

HITZALDIA GRIPEA ETA AUTOZAINNTZA

Negu honetan babestu zure osasuna

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Osakidetza**



06 **Eguena**
Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00-19:30



Liburutegian
18:30ean

TOPAKETA ELKARTEEN TOPAKETA INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

Puntu Seguruaren Sarea osatu dugu herriko 36 ostalari eta merkatarik, herri seguruagoa lortzeko bidean. Gure helburua indarkeria matxista jasotzen duten pertsonen eta euren ingurukoei babesa ematea da, baita indarkeria matxistarik gabeko espazioak sortzea ere. Oraingoan, herriko elkarteak eta eragileak gonbidatu nahi ditugu gurekin bat egin dezaten. Sarearen parte izan nahi duzue?

Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus / 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

LIBURU AURKEZPENA

‘BIZITZA BATEN TXATALAK. ANDRE BAT LURRARI EMATEA’, Onintza Enbeita Maguregi

Hamabi gaineko eta hamabi azpiko izan ziren Feli Madariagaren arreoa. Haiek hartuta joan zen Muxikako Igertu baserrira. Hortik aurrera bizitza ederra eraiki zuen Julian Gabikaetxebarria senarrarekin eta bien artean izan zituzten hiru alabekin. Laurogeita hamar urtetik gora, oraindik ere hezurrek uzten diotenean jorran egitera joaten da ortura. Baserriko lana gogorra omen da, baina lurak bizitzeko behar izan duen guztia eman dio Feliri. Gure amonen, birramonen edo gure amen bizimodua kontatzen da hemen andre baten ahotan. Baserrira bere horretan, erromantizismorik gabe.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



07 Barikua
Gizarte eta
Kultura Etxean
10:30-12:30



TAILERRA EMAKUME NAGUSIAK JAKINTZA ITURRI

Adineko emakumeek bazterketa sozial bikoitza jasaten dute, emakume izateagatik eta adinekoak izateagatik. Horren ondorioz, askotan ikusezin bihurtzen dira. Ordea, bizitzan zehar metatu dituzten esperientziak eta ikaskuntzak aintzat hartu beharra dauzkagu, ekarpen sozialak onartu eta aitortu.

Oraingoan, indarkeria matxistari aurre egiteko gakoan inguruan arituko gara, oraindik ere, komunitateari ekarpenak egiten jarraitzen dutelako, eta belaunaldi ezberdinen arteko lotura eta eredu direlako. Bermeo indarkeria matxistarik gabeko herria izan dadin ezinbesteko eragileak direlako.


60 urtetik gorako emakumeei zuzendua

Bigarren saioa: azaroak 21, barikua

Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus / 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bermeoko
Kafe
antzokian
18:00etan



Erroxaperen
lokalean
19:00etan

Campos
Eliseos-en
20:00etan

UMEENTZAKO ANTZERKIA "XOMORROT XOAK"

SINOPSISIA: "Xomorrotxoak" umore keinu bat duen ikuskizun bat da, familia osoarentzat. Bertan, gure auzokide txiki ornogabeak beste era batera aztertuko ditugu. Hobeto ezagutu, errespetatu eta balioztatzen ikasiko dugu. Antzerki lana oso koloretsua da, erritmo harrigarria du, eta gainera, ingurumena zaintzearen garrantzia irakasten diegu etxeko gatzetxoenei.

0-99 urtekoentzat

Sarrera: 5 €. Salgai azaroaren 1etik aurrera Gizarte eta kultura etxean eta udaleko webgunean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza

EKITALDIA BINGOA

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**



IRTEERA BILBORA

Korrontzi musika taldearen 'Urratsetan' emanaldira

Informazio gehiago eta izena emateko: Erroxaperen lokalean
Prezioa: 20 €

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

08 **Zapatua**
Erreteneke
geltokitik
07:30ean

IRTEERA

LODOSARA

Bazkaria barne

Informazio gehiago: Demiku jubilatuen elkartean

Antolatzailea: **Demiku jubilatuen elkartea**



*Areneko
kiroldegian*

KIROLA

ESKUBALOIA

Infantil Mutilak: Urdabai Talape – Barakaldo Horia

Infantil Neskak: Urdaibai Kurtzio – Arangoiti

Kadete mutilak: Aritzatxu – Romo A

*Bermeoko
Kafe
Antzokian
20:00etan*

EKITALDIA

HALLOWEEN METAL FEST

Vita Imana, Killus,
Kruddö, Kudai

Aurretiko salmenta (18 €): Bermeon

(Luman) eta Bilbon (Gothic-Zone), eta
hemen:

www.bermeokokafeantzokia.com/tiketak


EGunean bertan leihatilan: 20 €

Antolatzailea: **Spookypheria Productions
Elkartea**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



09 Domeka
Lameran
Goizean



AZOKA

SAN MARTIN AZOKA

XXII. Odoloste txapelketa eta txerriki azoka

Antolatzaileak: **Andeko taberna eta Bermeoko Apurtuarte Sokatira kluba**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

11 Martitzena
13 Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
17:30 - 19:30

TAILERRA

FAMILIEN OSASUN EMOZIONALA

Gurasoei eta tutoreei zuzenduta.


Hizkuntza: Elebidun

Tailerraren amaieran gida praktikoa bat emango da.

INFO + eta izen-ematea: 688 819 950

(WhatsApp) - www.gizbermeo.blogspot.com

Antolatzaileak: **BBK eta Bermeoko Udala**



12 Eguaztena
Eleizalde
Ikastolan
17:30-19:30

FAMILIA ESKOLA

GURE NERABEEN BIDELAGUNAK. NOLA ULERTU GURE SEME-ALABAK?

Izena eman behar da: 675 025 018 / 94 617 91 58

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



14 Barikua

SAN MARTIN KALEKO JAIK

17:30. Umeentzako txokolatea eta bizkotxoak txosnan
17:30etik aurrera. Buruhandiak txosna inguruan eta piñata
18:00. Maguren eskutik musika txosnan
19:00. Txupinazoa txosnan eta argazki erakusketaren aurkezpena (argazki erakusketa asteburu osoan egongo da Kresala tabernan)
19:30-21:00. Salsa ekitaldia Dantzaz Blai taldearen eskutik
20:00. Kanta kanta Loruen kalejira
21:00-00:00. Argitu erromeria txosnan
Ondoren. Kinky Nylonen kontzertua

15 Zapatua



****Goiz osoan taloa egongo da salgai txosna ondoan****
10:30. San Marton lasterketarako dortsalak salgai Kresala ondoan
11:00etik aurrera. San Marton lasterketa solidarioa (Eutsi Gogor Danok Batera elkartearen alde). Ibilbide luzea eta laburra egongo dira. Irteera Kresala Tabernatik. Lehenengo umeak eta ondoren, nagusiak.
12:00-13:00. Mariachi Dominguez
13:00. Arrekatxutxa taldearekin triki-poteoa
17:00-18:00. Sci Vi Fit – Entrenamentu Funtzionalaren eskutik erakustaldia (Kalistenia parketxoan, txosna inguruan).
17:00etik aurrera. Umeentzako tailerrak eta jolasak 3 guneeetan
18:00-21:00. Orkestra Elektrotuna
20:30. Euskal selekzioaren eta Palestinaren arteko futbol partidua ikusgai egongo da txosnan
21:30-23:30. Radio Guerrillaren kontzertua
Ondoren. DJ musika saioa Jaikideren eskutik

16 Domeka



10:00. Txosna ireki
10:00-13:00. Eskubaloia kalean, Urdaibai Eskubaloia Taldearen eskutik
11:00-13:00. Herri Kirolak txosnan
13:00-14:00. Alabatxi Aurrera taldearen eskutik musika saioa
12:30. Umeentzako MTB lasterketarako dortsalen banaketa (kalistenia parketxoaren inguruan)
13:00- 15:00. Orkatzeta elkartearen eskutik umeentzako MTB lasterketa (kalistenia inguruan)
14:00-15:00. Mahai-ingurua: San Martin lehen eta orain; auzoko bizipenak...
Ondoren. Zozketak, herriko hainbat komertzioen kolaborazioarekin
Bertsoekin egingo da jai amaiera

Antolatzailea: **San Martin Auzoko Elkarte Soziokulturala SMB**
Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

15

Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA

Infantil Neskak: Txatxarramendi – Errotabarri Urdina
Infantil Neskak: Sollube – Zuazo 2
Infantil Neskak: Gaztelugatxe – Urdaneta G
Infantil Neskak: Demiku - Kukullaga Etxebarri
Kadete Mutilak: Aritzatxu – Berdezurigorri
Kadete Neskak: Renteria – Ibaizabal Durango
Kadeta Neskak: Garbola Urdaibai – Tribis Urdaibai
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**


Artza
frontoian
17:00etan

BERTSOLARITZA

2025EKO BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALAURREKOAREN BIGARREN BUELTA

Zeanuriko irabazlea, Abadiñoko irabazlea, puntuaziaz
hirugarrena, puntuaziaz laugarrena, puntuaziaz
zazpigarrena eta puntuaziaz zortzigarrena.
Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Bizkaiko Bertsozale elkarteak**



16

Domeka
Santa Eufemia
elizan
11:30-13:00

DENDA SOLIDARIOA

KIDENDA

Antolatzailea: **Kidenda**

Bermeoko Kafe
Antzokian
19:00etan

MUSIKA

KONTZERTUA: 'IDOIA'

Sarrerak : 15€ www.bermeokokafeantzokia.com eta 18 € leihatilan
Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**

19

Eguaztena
Frantziskotarren
katekisan
18:00etan

TOPAKETA

BIHOTZEZ HEZI

Hizlaria: Txemi Santamaria, Lagungo Fundazioko psikologoa
Eman izena: Parrokietan edo 688 876 244 (Begoña)
Antolatzaileak: **Bermeoko eta Mundakako Parrokiak**

Erroxaperen
lokalean
18:30ean

HITZALDIA

'LOS PRESOS DEL FERROCARRIL'

Hizlaria: Asier Romero
Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkartea**

Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00etan


DEIALDIA

JAI BATZORDEA

Etor zaitez eta parte hartu Jai batzordean
Izen-ematea: 94 617 91 57 edo kultura@bermeo.eus
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

20

Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
19:00-21:00



FORMAKUNTZA

PUNTU SEGURUEN SAREA HANDITZERA GOAZ!

Gu indarkeria matxistaren aurka gaude! eta zu? 36 ostalari eta merkatarik osatzen dugu sarea eta gehiago izango gara! Gure helburua indarkeria matxista jasotzen duten pertsonen eta euren ingurukoei babesa ematea da, baita indarkeria matxistarik gabeko espazioak sortzea ere. Sarearen parte izan nahi duzu? Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus / 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**


*Irakaskintza
kalean
18:00etan*

MUSIKA

MUSIKALEAN

Musika eskolako konbo eta koroa

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



*Erroxaperen
lokalean
18:30ean*

FILM EMANALDIA

'QUE COMEN LOS VASCOS', dokumentala

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

*Liburutegian
18:30ean*

IRAKURLEEN TXOKOA

'KATU JENDEA', Eider Rodriguez

Ondoz ondoko lursailetan bizi diren andre-gizon bakarti bi, euren katuen harremanek elkartuak; eroritako hagin baten ondorioz eskolako lagun ahaztuarekin topo egitera beharturiko erizaina; oporrak gurean pasatzera datorren haur sahararrak etxekoan artean eragindako aztoramena; bi lagun errepidean, berriketa axolagabea; Parisen aberats izatera jolasten diren neska gazte pareak.... Hemen eta gaur giroturiko zazpi istorioetan barrena, gizon- emakumeen sentimendu esan gabeko eta ahultasun ezkutuetan arakatzen du Eider Rodriguezek: desiraren zirrikituak, edertasunaren on-gaitzak, diruaren morrontzak, sexualitatearen erretzea, ilusioen itzaltzea... Lurralde lanbrosuetan mugitzen dira ipuin hauek, luma bisturitzat harturik, kontaturikoa bezain inportantea dutelarik isildurikoa.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



21 **Barikua**
Gizarte eta
Kultura Etxean
17:30-19:30

Liburutegian
18:00etan

Arrantzaleen
Museoan
18:00etan

Nestor
Basterretxea
aretoa
20:00etan



TAILERRA

ZIKLOA EZAGUTZEN HILEROKOTIK HARATAGO

LH4, LH5 eta LH6 mailako neskeei eta haien emakumezko erreferenteei zuzendutako tailer honetan, emakumeen ziklotasuna nolakoa den eta bere funtzionamendua zein den landuko da espazio seguru baten.

Trebatzaileak: Ana Valles Renteria eta Esti Bilbao Bilbao
Izena emateko: berdintasuna@bermeo.eus / 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

FILM EMANALDIA

TXIKIZINE

Umeentzako filma jarriko da umeentzako liburutegian

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



MUSIKA

KONTZERTUA

Kankinkabara txistu taldearen eskutik, Gregorio Solabarrieta bermeotar musikariaren jaiotzaren 125.urteurrena ospatzeko kontzertua egingo da

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

ANTZERKIA

KORTXOAREN DILEMA, Tartean teatroa

SINOPSISIA: Endreduzko thriller politikoa bi aktoreentzat, espazio eta denbora unitate bakarrean. IRAKASLEA (70 urte) Etika eta Filosofia Politikoan katedradun jubilatua da, ezkertiarra, polemikoa eta itzal handikoa. Noam Chomsky iberiar bat.

Pronostiko gaiztoko minbizia dauka, baina sendatzeko aukera sortu da ezustean. Aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan eman dion erradioterapia ekipamendu batean tratamendua har dezake.

Iritzi publikoak goraipatu egin du donazio hau. Bakan batzuek, ordea, gaitzetsi egin dute. Haien ustez, buru zuritze bat da, trilerio baten trukoa, legez ordaindu beharko lituzkeen zergak ez ordaintzeko, eta bere enpresetan agertu diren trapu zikinak estaltzeko. Aberatsaren amarru honen salatzaileetako bat, nabarmenetakoa, Irakaslea izan da.

Orain erabaki latza hartu behar du: bere printzipioekiko leiala izan eta bizitza salbatzeari uko egin; ala prakak jaitsi eta filantropoari ipurdian pot egin. Gaur hartu du erabakia. Publikoki iragartzera doan unean, ezezagun bat, bere IKASLEA (60 urte) izandako bat agertuko zaio ezustean. Aspaldiko kontuak garbitzera dator.

Egilea: Patxo Telleria Zuzendaria: Mireia Gabilondo Aktoreak: Patxo Telleria, Mikel Martinez

Sarrera: 10 € (deskontudunak 7,50 € leihatilan bakarrik) Salgai azaroaren 10etik aurrera Gizarte eta Kultura Etxean eta udalaren webgunean.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza.

22 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA

Infantil neskak: Urdaibai Kurtzio – Gaztelugatxe Urdaibai

Infantil mutilak: Gaztelu – Erromoko Infantilak

Jubenil Neskak: Alakrana – Zuazo

Aurrekoetxea
kalean
20:00etan

SANTA ZEZILIA EGUNA
AURREKOETXEA KALEKO JAIK

Bermeoko Abesbatzaren ekitaldia

Txokolatea bizkotxoekin

Umeentzako jokoak

Musika

Antolatzailea: **Aurrekoetxea kaleko bizilagunak**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

Bermeoko
kafe
Antzokian
21:00etan

MUSIKA
KONTZERTUA: 'JANUS LESTER'

Sarrerak: 15 € www.bermeokokafeantzokia.com eta 18 € leihatilan

Antolatzailea: **Bermeoko Kafe Antzokia**

23 Domeka
San Frantzisko
elizan
13:00etan

EKITALDIA
MEZA ABESTUA

Santa Zezilia eguna dela eta

Antolatzailea: **Izaro Abesbatza**

25 Martitzena
Egunean
zehar

EMAKUMEEN KONTRAKO
INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO
NAZIOARTEKO EGUNA

Adi deialdietara



26 Eguaztena
Liburutegian
18:30ean



IRAKURLE TXOKO FEMINISTA

'ARIADNAREN HARIA', Beatriz Fernandez

Euskal Herriko greba feministetan bide-orri gisa erabili ditugun dosierren analisia egingo du eskuartean duzun liburuak, sexua, zaintza eta estatua hizpide izanik. Diskurtsoaren gaineko kontrola boterea da, diskurtsoak errealitatea sortzen duen heinean. Horregatik, liburuak hitzak bere inpaktu politikoeekin lotuko ditu. Diskurtso feminista fintzeko gakoak biltzeko asmoz eta barne eztabaida politikoa hauspotzeko helburuz dago egina. Militante gisa, guretik eta guretzat idatzia da. Menderatzaileek zentzu komunaz dihardute. Baina guk ondo dakigu hizkuntza hegemonikoa erabiltzen dituzten indarkeria-estrategien parte dela. Ez dute lortuko kontzeptuen eraldaketa politikoa gelditzerik. Categoria propioekin hitz egitea debekatzerik. Jarrai dezala botere lehiak.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

28 Barikua
Gizarte eta
Kultura Etxean
10:00etan

HITZALDIA

EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK: DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BIDEAK

Zer-nolako dirulaguntzak daude? Alokairurako dirulaguntzarik ba al dago? Langabezian geratzen banaiz edo lanik topatzen ez badut? Alarguntzen banaiz? Ezintasunen bat izanez gero? Seme-alaben ikasketetarako dirulaguntzarik ba al dago? Non aurki ditzaket galdera horien guztien erantzunak? Saio honetan hainbat dirulaguntzari buruzko informazioa landuko dugu eta egon daitezkeen zalantzak argitzea da helburua.

Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus / 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Liburutegian
18:00etan

IPUIN KONTALARIA

'IPUIN MAGIKOAK'

Umorea, abestiak, musika eta txotxongiloak,
Ainhua Etxebarriaren eskutik.


Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Erroxaperen
lokaletan
19:00etan

FILM EMANALDIA

'ERIN BROCKOVICH', filma

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**



TXILIPITXERUEK igerilekuan!



matro-igeriketa



29 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLA ESKUBALOIA

Infantil Mutilak: Talape – Urdaneta
Infantil Mutilak: Gaztelu – Jesuitak
Infantil Neskak: Txatxarramendi – Zuazo
Infantil Neskak: Sollube – Kukullaga
Infantil Neskak: Gaztelugatxe – Uribe Kosta
Infantil Neskak: Demiku – Urdaneta G



Kasinoan



JAIA

ANAITASUN BAZKARIA eta DANTZALDIA

Informazio gehiago: Demiku jubilatuen elkartean

Antolatzailea: **Demiku jubilatuen elkartea**

Artza
frontoian
20:00etan

KIROLA BOXEO II. JAIALDIA

Afizionatuen 8 borroka
Sarrera: 15 €

Antolatzailea: **Urdaiboxing kluba**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



Kultur Zerbitzuak

6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat



GAZTEENTZAKO JARDUERAK

UDAZKEN GAZTEA

ARIMEN GAUA BILBOKO ILUSIOEN MUSEOAN

Noiz? Azaroak 2, domeka - 17:00 - 21:00

(Joan-etorriak autobusez egingo dira, monitoreekin).

JARDUERAK:

- Museoa bisitatu
- Maskara tailerra
- Laborategi misteriosua (slime + sorpresak)
- Photocall "Happy Halloween"
- Jokoak + Errealitate Birtuala (Thriller dantzatu!)

Ume bakoitzak Halloween poltsa berezi bat jasoko du: gozokiak, oroigarriak, deskontuak...

Adina: 10-14 urtekoak (2011-2015ean jaiotakoak).

Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua

OHARRAK: Plazak esleitzeko, izen-ematearen iriste-ordena jarraituko da. Bermeon erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Plaza guztiak beteten badira, itxaron-zerrenda sortuko da.



INFO + eta izen-ematea www.gizbermeo.blogspot.com

688 819 950 (WhatsApp) - 946179158 - giz@bermeo.eus

Euskera

Nagusien antzerki tailerra

Urritik ekainera bitartean

Eguaztenetan, 19:30etik 21:30era

Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila


Berbalagun

**Berbalagun taldeak martxan
2025-2026 ikasturtean ere**

Animatu parte hartzera eta eman izena!
Dohainik da!

**Euskal dantza errazak ikasteko
ikastaroa**

Azaroaren 5etik aurrera Eguaztenero,
18:30etik 19:30era, Gizarte eta Kultura Etxean
Izena emateko: 607 609 580



KZ GUNEAK

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Azaroaren 3tik 11ra: 09:00-11:00. "Smarthponeak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi" (gaztelaniaz). 14 ordu.

Azaroaren 12tik 14ra: 09:00-11:00. "Bat-bateko mezularitza zure smartphonean" (gaztelaniaz). 6 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Azaroaren 4an: 11:00-13:00

Azaroaren 13an: 14:00-16:00

Zubiaur tar Kepa 26-28

1. solairuan (udal-azokan)

Tel.: 944033325

www.kzgunea.eus

tutor.bermeo@kzgunea.net



ZINEA

NESTOR BASTERRETxea ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Umeentzako filmak

Azaroak 1-2: **Hartzaren atzaparraren kanpamentua**

Azaroak 8-9: **Super Charlie**

Azaroak 15-16: **El Mago de ciudad esmeralda. El camino de baldosas**

Azaroak 22-23: **La princesa orgullosa**

Azaroak 29-30 **El colegio de los animales mágicos 3**

Nagusientzako filmak

Azaroak 1-3: **Acosada**

Azaroak 8-10: **Siempre es invierno**

Azaroak 15-17: **Gaua**

Azaroak 22-24: **Dos forajidos**

Azaroaren 29tik abenduaren 1era: **Aro berria**

SARREREN PREZIOA:

Zapatu eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

*65 urtetik gorakoentzat: 2 €

Umeen filmak: 4,50 €

ORDUTEGIA:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean

Astelehenean (ikuslearen eguna):


19:00etan eta 21:30ean

UMEEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean.

Adi egon! film gehiago iragarriko dira



ERAKUSKETAK

Arrantzaleen Museoa

**‘OLATUAREN ENBATEAN.
EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX.
MENDEAN’, ALDI BATERAKO
ERAKUSKETA**

Zalantzarik gabe, ezin da gure herriko historia hurbila eraiki emakumeak lan-munduan ez ezik, familian ere izan duen funtsezko papera kontuan hartu barik; rol horrek, Bermeo eraikitzea eta garatzea ahalbidetzen baitu.

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus
94 688 11 71

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa

Berhaz Bulegoan

**JAVIER TORREREN ‘PINTURAZ
GOZATZEN’**

Bermeo eta itsasoarekin lotutako paisaiak beti ageri dira bere artelanetan. Argazkietan inspiratzen da eta bere artista kuttunen lanak erreproduzitzen ditu.

Bulegoko ordutegia:

Astelehenak, eguaztenak eta barikuak:
08:00-15:00

Martitzenak eta eguenak: 08:00-14:00
eta 16:00-18:00

Apirilera bitartean

Nestor Basterretxea Aretoa

**GREGORIO SOLABARRIETA
MUSIKARI BERMEOTARRA**

Azaroaren 7tik 16ra
Egunero, 19:00etatik 21:00etara

Antolatzailea: Kankinkabara txistulari taldea

Laguntzailea: Bermeoko Udala

**“XXXIX CIUDAD DE FRIAS”
PINTURA LEHIAKETAKO
ERAKUSKETA.**

Azaroaren 21etik 30era
Egunero, 19:00etatik 21:00etara

Antolatzailea: Barrueta Arte Elkarte
eta Asociación Amigos de Frias

Laguntzailea: Bermeoko Udala





++ EPEA: 2025-11-07 (14:00)

++ BARRIA: 7.000€

INFO

ENTRADA

94 517 11 58

94 527 02 15

94 525 76 09

www.garretobusturialdea.net

BUSTURIALDEKO XII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA



GIZ

BUSTURIALDEKO XII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

Bizkaian errolatutako 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendua

Sariak:

1. saria: 3.000 € + Urtebeterako aholkularitza zerbitzua

2. saria: 2.000 € + Sei hilabeterako aholkularitza zerbitzua

Lehen sektorearekin lotutako ideia onena: 1.000 € (Aurreko sarietakoren bat jaso ez badu)

Errelebo enpresarialaren sari berezia: 1.000 € (Aurreko sarietakoren bat jaso ez badu)

Zerbitzu edo produktu baten ideia sortzaileak izan daitezke, edo 2024an edo 2025ean sortutako negozioak/enpresak, baina derrigorrez Busturialdean kokatuta egon beharko dute. Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2025-11-07 (14:00)

INFO + www.gaztedibusturialdea.eus eta www.gizbermeo.blogspot.com

LAN-ESKAITZEN HARPIDETZA ZERBITZUA

Lan-eskaintzak Whatsapp bidez jasotzeko, 688819950 zenbakira idatzi. Zerbitzuan alta emateko, 688819950 telefono-zenbakia gehitu behar da mugikorreko kontaktuen agendan, eta www.gizbermeo.blogspot.com webguneako eskaera-inprimakia bete.



XAKE ESKOLAK

10 urtetik gorakoentzat

Azaroaren 7tik aurrera, barikuetan, 17:00etatik 18:00etara, Gizarte eta Kultura Etxean
10-14 urte: 15 € hilero
14tik gora: 20 € hilero

**INFO + excipiente@hotmail.com
eta 688 819 950
(WhatsApp) - 946 179 158
giz@bermeo.eus**



BERMEOKO HAURRESKOLA


2025-2026 ikasturterako izena emateko epea zabalik azaroaren 1etik 10era bitartean (sarean edo aurrez aurre).
0 eta 2 urte bitarteko haur eskola publikoak doakoak izango dira guztientzat (2024-2025ean jaiotakoak)

Informazio gehiago: www.haurreskolak.eus / 94 688 05 63 / bermeo.bermeo@haureskolak.eus



BERMEOKO ZESTA ESKOLA

Bermeon zesta punta praktikatu gura baduzue, etor zaitez, martitzenetan, 19:30etik 20:10era, eta eguenetan, 17:00etatik 18:00etara.
Domeka arratsaldeetan, berriz, partiduak ikusteko aukera egongo da, Artza frontoian.



GURUTZE GORRIA ESKOLA LAGUNTZA

Bermeoko adingabeen ikasketetan lagundu nahiko zenuke? Egin zaitez boluntario Eskola Arrakasta proiektuan!

Zailtasunak sor ditzaketen ikasgaietan lagundu: ikasteko teknikak aplikatu eta material didaktikoak zein teknologia berriak zuzen erabiltzen irakatsi.

Martitzenak eta eguenak: 16:30 - 18:00.

Informazio gehiago: socialesbermeo@cruzroja.es / 94 688 36 16

ESKOLA-LAGUNTZA APOYO ESCOLAR

Bermeoko adingabeak ikasketetan lagundu nahiko zenituzke?

Egin zaitez boluntario Eskola Arrakasta proiektuan!

Hasiera: Urria

Astearte eta Ostegunetan 16:30 - 18:00.

¿Te gustaría colaborar en la promoción y beneficio de los/as menores estudiantes de Bermeo?

Hazte voluntario/a en nuestro proyecto de Éxito Escolar.

Inicio: Octubre

Martes y jueves | 16:30 - 18:00 h.

Zailtasunak sor ditzaketen ikasgaietan lagundu: ikasteko teknikak aplikatu, eta material didaktikoak zein teknologia berriak zuzen erabiltzen irakatsi.

Ayudar en las materias que tengan dificultad, desde el aplicar técnicas de estudio, comprender, así como el empleo de materiales didácticos y la aplicación y buen uso de las nuevas tecnologías.

*Bat egin!
Símate!*



Informazio gehiago

Más información

✉ socialesbermeo@cruzroja.es

☎ 946 88 36 16

🌐 cruzroja.es

📱 @CruzRojaBizkaia

IKASTAROAK ALKARTASUNA DANTZA TALDEA HERRITARRENTZAKO DANTZA IKASTAROA

Azarotik otsailera bitartean

Barikuetan, 19:00etatik aurrera, Gizarte eta Kultura Etxean.

Izena emateko: Gizarte eta Kultura Etxean





Abenduan...

- Mari Domingi eta Olentzero
- Euskararen Eguna
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots
- Gabonetako esku pilota txapelketa
- Gabonetako eskubaloi Txapelketa
- Neguko zesta txapelketa
- Puzgarriak igerilekuan
- Gabonetako kirol erakustaldia

Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

